

MATERIALISMO HISTERIKOA

Zuzen



UXUE APAOLAZA LARREA

Artikulua hasi da oinez, bazoaz letraz letra, hitzez hitz, esaldiz esaldi eta biribiltzen da paragrafoa. Oztoporik ez, begiko minik ez honek hemen behar zuelako eta ez han, atzera egin beharrik ez ergatiboa falta eta gorpua hiltzailea zela ohartu zarelako. Jaso duzu sarrerako informazioa, edo irentsi duzu amua, egin diozu zeure buruari egileak nahi zuen galdera... Eta erraz eta leun iritsi zara amaierara, ez zegoelako oztopo egin dizun zaratarik, despistatuko zintuen ustekabeko koma bat, jarrita daudelako ideiak hierarkizatzen dituzten puntu eta komak. Liburu, egunkari, aldizkari, testuliburu... erraztuta eta lanbasa ondo pasatuta iristen zaizkigu.

Denek alde egin dutenean, inor iritsi aurretik, inork ikusten ez duen lana egiten dute garbitzaileek. Beraiek bakarrik daki-te ia beti zirrikitu hori zikin egongo dela, beste hori jasotzea ahaztu egiten zaiela, eta horrek istripu bat sor dezakeela, bezeroek irrist egingo dutelako ziur, eta ez direlako, erorita ere, zeren erruz jausi diren ohartuko. Gauza batzuk ezkutuan garbitu beharko dituzte, inor ez mintzeko; ordenatutako zenbait gauza ordenatzeagatik muturra okertuko diete, edo kexatuko zaizkie, norbaitek hortxe bertan, erdi-erdian nahi zuelako aulkia, liburua, boligrafo potoa. Eta horiek zeudenean uzteagatik beste norbait pasa ezinik badabil ere, errua garbitzailearena izango da. Beren lana lotsagabe zainpatzen duenik ere bada.

Zuzentzaileak dira gure testuen garbitzaileak. Erredakziotik irteten azkenak, idazlarien miserien lekuko (ordutegizkoak, gramatikalak, heziketazkoak), kexen jopuntu (bakoitzak dauka-gulako gure estiloa, ez-ikasteko gogoa, ezin ikasia, ezina norbaiti egotzeko beharra)... zuzentzaileei esker irakurri ahal ditugu bestela begiak zaurituko lizkiguketen testuak, eta haiei esker ikas ditzake, nahi duenak, hizkuntza irakurgarri egiten duten arauak. Nik Maitane eta Junkal ditut gogoan, itzulpenak egiten ari nintzela ñabarduretan trebatu ninduten zuzentzaile zorrotzak. Beraiei esker naiz hobea. Gehienetan, zuzentzaileei esker ez dugu lotsarik ematen. Ia inoiz ez da beren lanaren garrantzia aldarrikatzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Nazioartea

Otsailaren 19an Azerbaijanek Nagorno Karabakh eraso zuen, Armeniarekin duen gatazkaren erdian dagoen lurralde menditsua eta armeniar jendea bizi dena. Hogeitalu orduren ostean hango agintariak su-etena sinatu zuten, Errusiaren bitartekaritzarekin, eta ondorioz "desegitea eta erabateko desarmatzea" hitzartu zuten.

Energia

Armintzako kostaldean itsasoan eraikitako airesorgailu bat energia-sarera konektatu dute egunotan. Bada, Europako erakundearen esanetan itsasoan eraikitako eolikoek ingurumena kaltetu dezakete eta Europako Batzordeak ez ditu kalte horiek aintzat hartu "energia urdina" garatzeko bere estrategiaren barruan.

Euskalgintza

Topaguneak birmoldaketa fasea aurreikusi du. Irailaren 22ko batzar orokorrean, Kike Amonarrizek, lehendakartzan, lekukoa eman dio Irati Iciar oñatiarrari. Euskara biziberritzeko proposamen berria prest du Topaguneak. Bestalde, UEMAn ere lehendakari berria aukeratu dute: Martin Aramendi, Ataungo alkatea.